



7. Euskararen Maratoiaren DVDaren aurkezpena ostiralean /4-5

Edu Galardik eta Isa Fernandez de Agirrek gogor egin dute lan guztia prest izateko. Ordu beteko emanaldia izango den arren, bikoite honek milaka ordu egin ditu materiala bildu, ikusi eta bideoak muntatzen. Haiekin hitz egin dugu prozesu osoaren berri izateko. •



Makulu Ken talde lasarteoriatarrek Jalgi Kafe antzokia bete zuten ikusle guztiak dantzan jarri zituen.

Giro izugarria hasiera festan

Lasarte-Oriako XI. Jardunaldi Internazionalisten hasiera kontzertuak arrakasta handia izan zuen

XI. Jardunaldi Internazionalistak era ezin hobean hasi ziren larunbatean. Lehenengo festa kubatarra egin zen Arkaitz-pe tabernan. Jalgi kafe antzokira lekualdatu eta Makulu Ken taldearen erritmo afrobeat eta karibearek parranda jarraitzeko aukera eman zuten. Baina jardunaldien muina gaur hasten da. Arratsaldeko 19:30etan Palestinari buruzko hitzaldia dago Kulturetxean. •



Dispersioaren aurkako bira Lasarte-Orian egon zen ostiralean

Villabonatik iritsi zen lekukoa gure herrira 11:30ak aldera. Usurbil eta Orioko lagunekin elkartu ondoren, Basaunditik hasi eta kotxe karabana Zabalera heldu zen. Hemendik oinez, Teresategira igo eta han omenaldi xumea eskaini zioten Argi eta Iñakiri. Ekitaldi honetan Joxe Mari Agirretxek hitz batzuk esan eta ondoren bertsolarien txanda iritsi zen.

13:00ak aldera, Udaletxe aurrean elkarretaratzea burutu eta ondoren Xirimirira joan

ziren bazkaltzera. Arratsaldean berriz, Hernani, Astigarrara eta Oiartzunetik pasa ondoren Oreretan manifestazioa egin zuten.

Akatsa zuzentzen

Aurreko zenbakian, Lasarte-Orian burutuko ziren ekitaldiak larunbaterako iragarri genituen. Artikulu honetan irakur daitekeen bezala, ostiralean izan ziren eta hanka sartzeagatik barkamena eskatu nahi dugu. •

KIROLA /2

Herriko pala eta areto-futboleko txapelketak azken fasean murgildu dira

KULTURA /6

Estudio del Pintor akademiako ikasleen erakusketa Kulturetxean

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Foto depilazioa argi pultsatuekin

- Era guztietako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Uistin kalea, z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria



ERREKATXO JATETXEA

- Eguneko menua
- Ostiraletako menua 8 euro
- Asteburuko menua enkarguz



JAUNARTZE ETA BATAIOETAKO MENU BEREZIAK

Oria Etorbidea 4 • Tel.: 943 365557 • Lasarte-Oria

Sorpresa handirik ez palako final laurdenetan

TXINTXARRI

Otsailean hasi zen Ostadar K. F.ak antolatutako XV. gomazko pilotako pala txapelketa. Bi hilabete hauetan kirol guneko pilotalekuan, 11 bikote, bi multzotan banatuak, sailkapen ligilan lehiatu dira multzo bakoitzeko lehenengo lau postuetako bat eskuratzeko eta asteburu honetan jokatu diren final laurdenetan egoteko.

Sorpresarik ez

Imanol Bardaji antolatzaileak adierazitakoaren arabera, "lehenengo ligilan ez zen sorpresarik egon final laurdenetara sailkatu ziren bikoteen artean."

Eta, orain ere, finalaurrekoetarako txartela eskuratu duten bikoteak espero zituztenak direla onartu du Imanolek. "Azpimarratzekoa da, azken lau urteetako txapeldu-



B. Odriozola eta S. Martin bikoteak I. Azkonobieta eta E. Iradiren aurka jokaturako partida ikustekoa izan zen.

nak, Oskar Lazcano eta Iñigo Arluziak aurrera egin dutela oraingoan ere," esan digu.

Hala ere, final laurdenetako partidetan lehia ikusi ahal izan dela adierazi du, batez

ere, azkenekoan, Bernaitz Odriozola eta Santi Martin bikoteak Ibon Azkonobieta eta Eneko Iradiren aurka jokaturakoan. "Final laurdenetako partidarik orekatuena zen eta

bi bikoteek zituzten aukerak aurrera egiteko. Baina bakarkako hutsek erabaki dute partida eta, azkenean, Bernaitz eta Santik 30 eta 21 irabazi dute."

Beste partidatan, Josu Iparagirre eta Aitor Matxainek Iñaki Lizaso eta Alain Etxebesteren aurka galdu zuten 18 eta 30; Oscar Lazcano eta Arluziagak ez zuten partidarik jokatu lehiakideak agertu ez zirelako eta hirugarrenean, Xabier Etxezarreta eta Haritz Urdanpilletak 30 eta 15 irabazi zieten Imanol Muxika eta Unai Salaberriari.

Final aurrekoak

Era honetara, Bernaitz Odriozola eta Santi Martin, Iñaki Lizaso eta Alain Etxebeste, Oscar Lazcano eta Iñigo Arluziaga eta Xabier Etxezarreta eta Haritz Urdanpilleta dira hurrengo igandean finalaurreko partidak jokatu dituzten bikoteak.

"Finalera begira, Lazcano eta Arluziaga dira faboritoak, baina finalaurrekoak geratzen dira oraindik eta ustekabeak egon daitezke," azpimarratu du txapelketako arduradunak. •

Kirol emaitzak

Futbola

Sporting de Herrera-Ostadar (Infantilen ohorezko maila, kopa) 0-1
Ostadar-Ordizia (Infantil Txiki kopa) 0-1

Areto-Futbola

Herriko txapelketa

Play-offa

Buenetxea-Ainhua. 4-1
ISU Leioak-Izarra. 3-1
Lurra XXI-Jordi. 1-1
Izkiña-Biyona. 2-0

Ligila eta kontsolazioa

Katanga-Illargi. 10-2
Obelix-Siglo XX. 1-3
Danena-Oria Krist. 1-1
Mayi-Okela. 8-5
Epe-Tragoxka. 3-4
Viña del Mar-IOB H.K. ... 3-3



Play offeko lehenengo partidatan Buenetxea eta Ainhua lehiatu ziren eta Buenetxea gailendu zen. Ligila eta kontsolazioa partidetan ere lehia handia ikusi genuen.



Finaletarako atzerako kontaketa

Ostadarrek antolatutako Areto-Futboleko Herriko Txapelketan parte hartzen duten taldeentzat oporraldia larunbatean bukatu zen. Eta indarrez etorri dira taldeak, batez ere, bigarren fase honetan txapel-

ketako finalerako txartela eskuratu dezaketzen Ainhua, Buenetxea, Izkiña, Biyona, ISU Leioak, Izarra, Lurra XXI eta Jordi Sonido.

Play-offa, ligila edo kontsolazioa dira

taldeek hemendik finalerako jokatu dituzten lehiaketa ezberdinak.

Nahiz eta kontsolazioa edo ligilan parte hartu talde guztiek nahi dute finalerako egun handian egon. Horregatik, lehia handia ikusi ahalgo da hemendik aurrera kirol guneko, zein kiroldegiko areto-futboleko zelaian. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikulueta eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Nahiz eta *Kutreafay* gazte kopuru txikia bildu, kontzertuetan lasarteoriatar gehiago bildu zen Oriako pilotalekuan Multimusikala elkarteak antolatutako *Kutreunean*.

Egun dibertigarri eta kutrea

■ Gazte ugari bildu zen Oriako pilotalekuan *Kutreune*ko kontzertuetan

TXINTXARRI

Arratsaldean hasi zen Multimusikalak antolatutako *Kutreuna*. Kalejira moduan izan zen eta gazte multzo bat ikusi ahal izan zen tabernaz-taberna herriko erdigunetik Oriako pilotalekura daraman bidean barrena.

Gainera, taberna batean galdu edo omen ziren pilotalekuan zain zuten afarira berandu iritsi baitziren.

Nekez berreskuratuko zituzten gazteek ibilaldian eta edalontia gora eta behera egon ostean galdutako indarrak *Kutreafay*arekin. Izan ere, sandwich batzuk eta patatak baitziren menua osatzen zuten jaki gozoak. Beraz, izena merezia zuen.

Kontzertuak

Honela, kontzertuen garaia iritsi zen. Afarian bildutako gazte taldea murrizta bazen

ere, kontzertuak hasi eta herritarrak biltzen joan ziren pilotalekuan.

Taula gainean, lehenik, *Aurka* talde lasarteoriatarren indarra eta soinu gogorrak entzun ahal izan ziren.

Ostean, herriko *Despervicio* taldearen txanda zen. Tamalez, kide baten eritasunagatik, taldeak ezin izan zuten *Kutreunean* parte hartu. Eta, ondorioz, bigarren talde batek hartu zuen bere lekua.

Azkenik, *Raganath* taldearen merenge eta rumbarekin goizeko ordu txikiak arte egon ziren dantzan.

Tartean Kutre errege eta erregina aukeratu zituzten moxorroturik zihoan gazteen artean.

Gau dibertigarri eta kutrea benetan Multimusikala elkarteak kideek antolatutakoa. Eta helburu nagusia, abenduako Multimusikalerako dirua bilzteza, bete zuten. •

HIRIGINTZA BATZORDEA

Kotxeraseko eraldaketa onartu du Batzordeak

Joan den apirilaren 3an ospatu zen Hirigintza batzordean eta bertan hasierako izaeraz onartu ziren A-18 Kotxeras Interbenzio Urbanistikorako Area urbanizatzeako jarduketa-programa eta Kontzertazioko Hitzarmena.

Aurreikusita dago aurten Kotxeras auzoari dagokion izapide urbanistiko guztia egitea. Eta, hori guztia egin ostean, datorren urtean lanak martxan jartzea posible izango litzatekeela uste dute Udaletik.

Aipatzekoa da, eremu honetarako egin dire aurreikuspenetan, besteak beste, 405 Babes Ofizialeko Etxebizitza eraikitzea dagoela.

Era berean, batzordean jakin arazi zenez, Zarata Mapa Estrategikoen dokumentuan jasota dagoen moduan, Foru Aldundiari N-1 errepidearen inguruan egin zuen zarata azterketaren emaitzen berri ematea eskatuko zaio eta zehazki Lasarte-Oriako tarteko emaitzak.

Azterketarako Udalak berak egindako ikerketen datuak Aldundiari erraztu zizkion arren, Hirigintza batzordeak eta Lasarte-Oriako Udalak ez ditu datu hauek ezagutzen.

Eta ez da eskaera hau egin den lehenengo aldia, izan ere, joan den uztailaren ere egin baitzen eta oraindik ez da erantzunik lortu. •

Emanaldi berezi eta kritikoa eskaini zuen *Kulek*

Manuel Lekuona Kulturetxeko kafetegira hurbildu zen jendea *Kul* edo Hodei Eceiza bakarariaren kontzertu intimoa ikusteko aukera izan zuen.

Ez zen ohizko kontzertua izan. Izan ere, bakarlari ordiziarrek proiektu honetan eskaintzen dituen emanaldietan musika eta bideoa nahasten baititu

Gitarra eta oinarri elektronikoen oinarritutako doinuak eta pop eta rock elektronikoen arteko nahasketa erabili zuen *Kulek* gaur egungo gizartearen aurrean duen jarrera kritikoa erakusteko.

Eta, horrekin batera, salaketa eta sentimendu horiek ulertzen laguntzen dizkiguten irudiak proiektatu ziren



Emakumeen Zentro Zibikoko azken hiruhilabeteko ikastaroak prest

Emakumeen Zentro Zibikoak azken hiruhilabeteko ikastaro eta jarduerak prest ditu dagoeneko eta apirilaren 27an hasi eta uztailaren 3ra arte luzatuko diren ekintza eskaintza zabalda da.

Gorputza zaintzeko mantentzeko gimnasia, pilates, yoga edo tai-chia; orratz lanak edo bolioak etxeko apaingarriak egiteko; kantua, sevilanaka edo sabel dantza momentu onak pasatzeko eta hazkuntza pertsonala lantzeko tailerrak.

Eta, hauetaz gain, irakurketa txokoa edo hilabeteroko bideoforuma ere mantentzen dira.

Izena ematea

Doan edo ordainduta, jarduerak ororentzat izena eman behar da apirilaren 14tik 24a arte, Emakumearen Zentro Zibikoan 09:30etik 13:30era eta 15:00etatik 20:00etara.



Hilabeteroko bideoforumean gai ezberdinak jorratzen dira Zentro Zibikoan.

Lasarte-Orian errolatuta egotea ezin bestekoa da. Eskaera orriarekin batera N.A.Naren fotokopia bat eta Kutxako kontuko 20 zenbakia aurkeztu beharko dira.

Eta, prezioei dagokienez,

jarduera batean apuntatu nahi izanez gero 37,20 euro ordaindu beharko dira, bitan parte hartu nahi izanez gero 44,50 euro, hiritan 48,70 eta lau edo gehiagotan 51,90 euro. •

Euskararen 7. Maratoia oso osorik ordu betean

■ DVDa aurkeztuko du zortzikoteak ostiralean 20:00etan Kultur Etxeko aretoan ■ Edu Galardi eta Isa Fernandez de Agirre arduratu dira ekoizpenaz ■ Maratoiko ordu beteko laburpenarekin batera beste bospasei bideo jaso dira

Edu Galardi eta Isa Fernandez de Agirre buru belarri aritu dira azken asteotan Euskararen 7. Maratoiko DVDa prestatzen. Datorren ostiralean hilaren 24 arratsaldeko 20:00etan aurkeztuko da Kultur Etxeko aretoan eta orduko irudi zein bizipenak berriz gogora ekarriko ditugu. DVDan sartu diren bospasei bideoetatik gutxienez laburpen nagusia emango da ekitaldian. Gainera, xelebrekeria eta ateraldietarako tartea ere izango da aurkezpenean bertan izango baita azken zortzikotea ere, bere umore eta aldarte onarekin. DVDak salgai izango dira Kultur Etxean bertan.

Jon ALTUNA

Euskararen 7. maratoiak izan zuen arrakasta isladatuko du Edu Galardi eta Isa Fernandez de Agirrek prestatu duten DVDak.

Ez da lan erraza 2008ko urriaren 18 eta 19an 40 ordu-tan burutu ziren ekitaldiak ordu beteko pelikula jasotzea edo beste era batean esanda 17-18 orduko grabaketa ordu betean laburtzea.

Edu Galardik adierazi digunez, "Euskararen Maratoiairen espirituaren jarraipena da DVDa. Ez da lan erraza 2008ko urriaren 18 eta 19an 40 ordu-tan burutu ziren ekitaldiak ordu beteko pelikula jasotzea edo beste era batean esanda 17-18 orduko grabaketa ordu betean laburtzea. Edu Galardik adierazi digunez, "Euskararen Maratoiairen espirituaren jarraipena da DVDa. Ez da lan erraza 2008ko urriaren 18 eta 19an 40 ordu-tan burutu ziren ekitaldiak ordu beteko pelikula jasotzea edo beste era batean esanda 17-18 orduko grabaketa ordu betean laburtzea.

Bien arteko elkarlana

Horregatik ez da bikote honen lana erraza izan. Isak ere bat egiten du horrekin, "batez ere ikusita jendea gogo handiarekin zela eta disfrutatu egin zuela."

Lanak ondo banatuta dituzte, Edu arduratu zen grabaketaz

“Euskararen Maratoiairen espirituaren jarraipena da DVDa

“Maratoia zabaldu egin da, ezin dugu bi tokitan aldi berean egon. Gu iristen ez garen tokietako irudiak nahi genituen eta Mikeli eskatu genizkion

“Hainbeste gauza izan dira, gauza berri pila bat, gero eta hobeagoak, parte hartzea izugarria izan da eta pena ematen du ezer kentzeak

eta Isak egin du muntaketa osoa.

Aurten herritar gehiagoren laguntza izan dutela ere nabarmendu dute, baina bien arteko elkarlana dela esan daiteke. Edu Galardik azaldu digu prozesua, "elkarlana da, nik ohitura gehiago daukat kamararekin, hori errazagoa da neratzat eta 40 orduak ez baina 17-18 ordu grabatuta daude, aurreko maratoian beste gutxi gorabehera. Isa muntajearen ohitura dago, badaki nolako emaitza nahi dugun, eta dauden irudietatik onenak hartu, historia bat harilkatu eta osatzen joaten da."

Muntatzerakoan bien artean eztabaida asko izaten duten galdetuta, Eduk ezetx dio, "Isaren esku uzten dut, ezin gara eztabaidatzen hasi. Gutxi gorabehera aldez aurretik badakigu zer nahi dugun eta berak egiten du."

Gero Isak kontatu digu ondo etortzen dela beste pertsona bat ondoan izatea, "zinta bakoitzaren pelikula egin eta erakutsi egiten diot, bere aholku eta laguntza eskatu, sarri ordu asko pantaila aurrean eman ondoren jada ez duzu eta ezer ikusten. Beldurrez izaten naiz eta ulertuko ote den... audioaren menpe ere izaten



Gogoratzen al duzue zortzikoteak larunbatean dantztatu zuen Isabel dantza? 7. Euskararen Maratoiaen gertatutako hainbat pasadizo ordu beteko emanaldian. Anima zaitzete!

gara." Lana handia bada ere, ez dute penarik Isaren iritziz, "nik esaten dut pribilegiatu batzuk garelara, ez dugu ezer galdut. Herrikoek maratoiairen parte batzuek ikusi dituzte, bazkari edota afairaren bat,... baina guk dena den."

Laburpen zabala

DVDak denetarik jaso du, batek 40 orduko egitarau luze horretatik gutxi gorabehera ordu beteko laburpen bat izango du eta bestetik gehigarriak: kirol frogak, bideo klipa, Landaberriko ikasle ohien jaialdia, sagardotegiaren jira,...

Batean kirol frogak ikusi ahal izango dira, Teresategira joan etorriak, bi egunetan burutu ziren zapi maratoiak eta Buruntzako proba.

Beste batean garai batean Landaberri ikastolan egiten zen festibala ikusiko da, asko landu zelako, garai hartako irudiak eta ahotsak lortu zirelako eta ikasle ohien ekitaldia bera oso polita izan zelako. Hirugarren batean sagardotegiaren inguruan

egin zen lana ere sartu da, emaitza ere ona izan zelako.

Eta aurreko maratoiairen egin zen bezala Bero bero abestiarekin bideo klipa prestatu du Isa Fernandezek. "Herriko jendea dantzan agertuko da," aipatu du. Behin eta berriro grabatu zen abesti hori eta irudien nahasketa bat izango da.

Parte hartze handia

Maratoiak iraun zuen bi egunetan, 2008ko urriaren 18 eta 19an, biak aritu ziren grabatzen eta Mikel Zelaiairen laguntza izan zuten.

Hauetaz gain, herritarrek emandako beste irudi batzuek ere badituzte, esaterako, familia baten Teresategira igoera euren grabatuta.

"Maratoia zabaldu egin da, ezin dugu bi tokitan aldi berean egon. Plazatik kanpora ere zenbait gauza egiten dira eta horiek ere sartu behar dira," azaldu digu Edu Galardik "Mikel Buruntzaraino igo zen, zapi maratoiak grabatu zituen,... Gu iristen ez garen



tokietako irudiak eduki nahi genituen eta berari eskatu genizkion".

Isa Fernandez de Agirrek Maratoiak izan zuen parte hartze handia azpimarratu du, "DVDa muntatzeko orduan ikusten da hori, zer kendu? Hainbeste gauza izan dira,

gauza berri pila bat, gero eta hobeak, parte hartzea izugarria izan da eta pena ematen du ezer kentzeak, baina aldi berean ezin da DVDa luze egin..."

Zailtasunak

Maratoia egindako lanak



Edu eta Isak lan gogorra egin zuten Maratoiaen eta orain DVDa muntatu dute, ordu beteko laburpena eta gaiko bost bideo.

Irudiari lotutako bikotea

Edu Galardi eta Isa Fernandez de Agirreraren azken urteotako bizitza irudiari lotuta dago, buru belarri aritzen dira lanean eta baita Lasarte-Orian burutuen diren kultur ekitaldi gehienetara jasotzen ere.

Horregatik, galdetu diogu Edui, afizioa ala ofizioa den beretzat, eta dudarik gabe erantzun digu "gehienbat ofizioa" baina bere gustuko dela gehituz.

Eduk lanetik kanpo irudiarren mundua gehiegi jorratzen ez duela esan arren, Isak gogoratu du zenbat ekitaldi grabatu dituzten: Antzerki astea, maratoia, Korrika eta Mundua Konpontzeko Tailerra, besteak beste. Aitortu digu gustura eta gogo handiz egiten dituela horrelako lanak, eta pantailan emateko prestatu zituzten zenbait irudi ere sartuko dira DVDan.

Azken maratoiko beste berrikuntza bat pantailaren erabilera izan zen, eta pantailan emateko prestatu zituzten zenbait irudi ere sartuko dira DVDan.

"Pantaila edukitzeak ere aukera asko eman zizkigun. Berrikuntza interesgarrietako bat izan zen," asierazi digu Eduk.

Ez zekiten pantailak momentuan nola funtzionatuko zuen eta aurretik irudi pila bat grabatu zituzten. Gero ikusi zuten zuzeneko irudiak emanda ere erabilgarria zela eta gauden etekina alera zitaion pantailari.

Irudiari lotutako bikotea

Edu Galardi eta Isa Fernandez de Agirreraren azken urteotako bizitza irudiari lotuta dago, buru belarri aritzen dira lanean eta baita Lasarte-Orian burutuen diren kultur ekitaldi gehienetara jasotzen ere.

Horregatik, galdetu diogu Edui, afizioa ala ofizioa den beretzat, eta dudarik gabe erantzun digu "gehienbat ofizioa" baina bere gustuko dela gehituz.

Eduk lanetik kanpo irudiarren mundua gehiegi jorratzen ez duela esan arren, Isak gogoratu du zenbat ekitaldi grabatu dituzten: Antzerki astea, maratoia, Korrika eta Mundua Konpontzeko Tailerra, besteak beste. Aitortu digu gustura eta gogo handiz egiten dituela horrelako lanak, eta pantailan emateko prestatu zituzten zenbait irudi ere sartuko dira DVDan.

Azken maratoiko beste berrikuntza bat pantailaren erabilera izan zen, eta pantailan emateko prestatu zituzten zenbait irudi ere sartuko dira DVDan.

"Pantaila edukitzeak ere aukera asko eman zizkigun. Berrikuntza interesgarrietako bat izan zen," asierazi digu Eduk.

Ez zekiten pantailak momentuan nola funtzionatuko zuen eta aurretik irudi pila bat grabatu zituzten. Gero ikusi zuten zuzeneko irudiak emanda ere erabilgarria zela eta gauden etekina alera zitaion pantailari.

dira normalean. Errealizadoreari eskatzen digun planoak eskaini eta tokiatzen zaigun pertsonaia jarraitu behar dugu."

Edu Galardik Arte Ederrak ikasi zituen ikus-entzunezko arloan. "Honetan espezializatu nintzen eta gustura ari naiz" esan digu. Eta sinistu beharko diogu 20 urte baitaramatza jada.

Isa Fernandez bere bikote eta laguna ere trebatua da irudi kontuetan. "Irudi eta soinua" ikasi zuela kontatu digu, "Erandion, bizkaitarra nintzenen". Aspalditik bizi da Lasarte-Orian eta bien artean hainbat lan egin dituzte herrian.

Bera ere urte askoan aritu da ETBn, kamara gisa hasieran eta gero errealizadore. Gustuko du berak ere lan hau. Bere ustez, "errealizazioan muntaketa polita da, ez bakarrik grabatzea baizik eta gero puzzlea osatzea. Gustatzen zait. Herriko gauzak grabatzeak eta muntatzak aukera ematen dizu, gainera, herrian parte hartzeak eta telebista mundutik ateratzeko".

1990ean hasi eta 14 urtetan egon zen Goenkale grabatzen eta gero, beste saio batzuetan. "Iaz utzi nuen. Orain Pirritx eta Porrotx-en bideoak egiten aritzen naiz eta oso ondo pasatzen dut," onartu du Isak. •

ANAIK
JANTZI-DENDA

Udaberria hemen dago !!

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 362386

PREST
MONDRAGON UNIBERTSITATEA

UNIBERTSITATEA BIZITZEKO PREST!

ATE IREKIAK etorriko zurela jakinarazi!

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
APIRILAK 25 - 11:00 larunbata MAIATZAK 7 - 17:30 osteguna
ARRASATE-MONDRAGON AULIA MAGNA Tel.: 943 73 96 29 // bgueneru@eps.mondragon.edu

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA
MAIATZAK 7 - 18:00 osteguna
IRUN AULIA MAGNA Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidsoa.eteo.mondragon.edu

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
APIRILAK 23 - 18:00 osteguna MAIATZAK 9 - 11:00 larunbata
ESKORRIATZA AULIA MAGNA Tel.: 943 71 41 57 // sarrera@huzei.mondragon.edu

www.mondragon.edu/prest

KOOPERAZIOA

Udalaren ordenagailu emaria

Lasarte-Oriako Udalak 18 ordenagailu eman dizkio Akiba Gobernu Kanpoko Erakundeari, Emakumearen Hezkuntza Zentroa hornitzeko proiektu baten baitan.

Udalak emandako ordenagailuak erabilitakoak dira eta udal artxiboan gordeta zeudenak gainera.

Ordenagailu emari hau Ekuatore Ginean herrixka batetako emakumeen hezkuntza zentrorako oinarritzko materiala lortzeko (ordenagailu berriak edo erabilitakoak) proiektu batean kokatzen da.

Emakumeen Zentro honetan, ohiko hezkuntza sistemaren barne egoteko aukerarik ez duten emakume gazteak hartzen dituzte.

Akiba GKEak Ekuatore Ginean lan egiten du behar gehien duten komunitateen garapen osoaren alde eta, era berean, garapen horren instrumentu bezala emakumeak izan dezakeen paper garrantzitsua azpimarratzen du. •

SAN PEDROAK 2009

Haur Danborradan izena emateko epea gaur ireki da

Herriko jaiak direla eta, Gazteria eta Festetako saila Haurren Danborrada prestatzen hasi da. Parte hartu nahi duen guztiek gaurtik hasi eta maiatzaren 8a arte dute izena emateko.

Manuel Lekuona kultur etxean dagoen Gazteen Informazioarako Udal Bulegoan eman behar da izena 11:00etatik 13:00etara edo 17:00etatik 20:00etara bitartean eta, horretarako, fitxa bat bete beharko da eta NAN-ren edo Familia Liburuaren fotokopia batekin batera entregatu.

Aurten, gainera, jantzi berriak izango dituzte, 15 kantinerentzako, 15 gastadoreentzako, 50 danborrentzako eta 26 barrildunentzako.

13 eta 14 urte dituzten gazteek edo kopuruagatik barriletan plazarik gabe geratu direnek, aurreko urteetako jantziekin parte hartu ahal izango dute. Eta, era berean, kantinera edo gastadore plazarik ez duten bost eta sei urteko haur guztiek baserriar jantziarekin parte hartu dezakete.

Behin izena emateko epea itxita, danborradako plazen zozketa egingo dute eta emaitza kultur etxeko iragarri-taulan jarriko dute maiatzaren 21etik aurrera. •



David Fernandezek esan digunaren arabera, argazkian ikus daitekeen bezala, ikasleek margolanak egiteko gehien erabiltzen duten gaia itsas-paisaiak dira.

Olio-pinturen erakusketa zabala Manuel Lekuona kulturetxean

■ *Estudio del Pintor* akademiako ikasleen lanak ikusgai daude apirilaren 30era arte erakusketa gelan

TXINTXARRI

David Fernandez da *Estudio del Pintor* akademiako irakaslea. Margolaria izatez, bost urte daramatza irakasle lanetan eta horietako bi eta erdi Lasarte-Orian. "Donostian hasi nintzen akademiarekin. Bertan dendatxo bat ireki eta ez zuen asko iraun. Lasarte-Oriara etortzea erabaki nuen, hemen akademia gutxiago zeudelako eta margotzen ikasi nahi duen orori aukera emateko," adierazi digu Davidek.

Erakusketa

Olioz egindako paisaiak, natura hilak eta erretratuak. horiek dira apirilaren bukaera arte, Manuel Lekuonako erakusketa gelan ikusi ahaliko diren margolanak.

Erakusketaren ideia Daviden izan zen. "Margolanak erakustea eta besteen lanak ikustea oso aberasgarria da ikasleentzat. Lan askoren emaitza da. Gainera senideek eta lagunek ikustea ere ongi dator," aipatu digu.

Ikasleek lanetan erabiltzeko teknika galetu eta "gehienak olioak dira eta akuarelaren bat badago," erantzun du. Eta zera atxiki du, "olioa da jende gehien erabiltzen duen teknika. Esker

oneko materiala da, lehorteko denbora asko behar duena eta hori koloreen nahasketa egiteko ona da. Akuarela, ordea, azkarrago lehortzen da eta ez du aukera askorik ematen nahasketetarako."

Paisaiak nagusi dira erakusketan eta honi buruz galdetu diogu. "Momentuz paisaiak dira ikasleek egiten dituzten margolanak, gehienak itsas-paisaiak gainera. Nik erretratuak egiteko eskatu diet, baina gutxi batzuk hartu dute erronka. Erretratu oso zaila da," onartu du, "Gainera, paisai bat edo erretratu

bat ez da gauza bera, erretratu batek lan eta ordu gehiago behar du."

Kalitate handiko lanak dira gehienak. "Akademian dagoen jende askok aurretik margotzen zuen eta oinarri ona zuen gainera. Hala ere, nirekin hasi zirenek ere teknikoki asko hobetu dute. Eta hori lanetan antzematen da," aipatu du.

Akademia

Etxean edo akademia batean lan egitearen ezberdintasuna ere azaldu digu irakasleak, "ez da gauza bera etxean edo

akademian lan egitea. Etxean agian hilabete batean egin dezakezuna akademian bi edo hilabete gehiagotan egiten duzu."

Ikasketa metodoaren harira zera aipatu digu, "ez dizkiet lanak bidaltzen, bakoitzak nahi duena egiten du. Egiten ari zarena gustura egitea, hori da garrantzitsua nire ustez ikasteko. Nik aholkuak ematen dizkiet edo oinarritzko hiru koloreak nola nahastu behar dituzten irakasten diet. Ikasleek hautatutako gauzak egin daitezke, lan gehiago edo gutxiarekin, baina guztiak egin daitezke. Orduak eta pazientzia behar dira, ez baita erraza kolore zehatza aurkitzea edo itzala ongi egitea."

Egun akademian 32 ikasle ditu. "11 urteko ikasle bat dut, baina beste guztiak helduak dira. Eta oso gustura egiten dute lan. Aurki haurrekin lan egiten hasteko asmoa dut. Ostirala arratsaldean eta larunbata goizean ordu eta erdiko saioetan. Ea animatzen diren."

Eta, azkenik, lasarteoriar guztiak gonbidatzen ditu akademiako erakusketa ikustera, "apirilaren 30era arte egongo gara bertan, kulturetxeko erakusketa gelan." •



Natura hilak, kaleak edo paisaiak dira erakusketan ikusi daitezkeen margolanak.

Egunero

Erakusketa

DAVID FERNANDEZ ITURBEREN IKASLEEN LANAK ikusgai apirilaren 15etik 30era, **Kulturetxean 18:00etatik 21:00era**.

Asteazkena 22

Hitzaldia

HAUR TIRANOAK. MITOTIK HARA-GO hitzaldia eskainiko du haurren osasuna eta prebentzioan aditua den Enkarni Gomezek emango du. **Kulturetxean, 18:00etan**.

Hitzaldia

HONDAKINEN KUDEAKETA OSASUNTUA. ERRAUSKETARIK EZ! hitzaldia eskainiko du Lasarte-Oria Bizirik elkarteak Herrera kideak. **CNT-ko egoitza berrian, 19:00etan**.



Ostirala 24

Proiektzioa

Ttakun K.Eak herriaren laguntzaz antolatutako 7. EUSKARAREN MARATOIKO BIDEOAREN EMANALDIA eskainiko da.



Ché: El argentino filma Okendo Z.T.ren eskutik

Filmak Ché Guevara argentinarrak Kubako iraultzan mediku izatetik iraultzailearen heroi izaterako bidean bizi zuena erakusten du Steven Soderberghen filmak.

Osteguna 23
MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN
GAZTELANIAZ
SARRERA: 4,15 EURO

Manuel Lekuona kulturetxean,
20:00etan

Jam Sesioa

Jalgiko JAM SESIOEN XX. SAIOA ospatzeko soul eta jazz entzun ahalko da V.O.S4tet talde gonbidatuaren eskutik. Animatu parte hartzera. **Jalgi kafe-antzokian. 22,30ean**.



IV. Musika Topaketak

Musika klasikoko kontzertua AINHOA MERZERO eta ARIEL CRUZ LAURENCIOREN eskutik. Danok Kideak antolatuta. **Brigiten Komentuan, 19:30ean**.

Ostirala 25

Haur antzerkia

MUNSTRUAK AKATU antzezlan eskainiko du Mutante Antzerki taldeak haurrentzat. **Manuel Lekuona Kulturetxean. Sarrera: 3,15 euro. 18:00etan**.



Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Begirale izateko

Ttakun Kultur Elkartek udaran antolatzen dituen udaleku ezberdinetan (txokoak, kanpaldiak...) begirale izateko izena emateko epea zabalik dago maiatzaren 15a arte.

Interesatuek bide ezberdinak dituzue izena emateko: Ttakunetik pasa (Geltoki kalea 4), telefonoz 943 371448 zenbakira deitu edo mezua bidali aisia@ttakun.com helbidera elektronikora.

Galdutako txaketa

Martxoak 20an marrazki beltzdund txaketa gris bat galdu nuen Boko Errota edo Kale Nagusia inguruan. Norbaitek aurkitu badu itzultzea eskertuko nioke. Harremantarako zenbakiak: 620 071 384 eta 943 370 438 (Maite)

Hitzaldia: kooperazioa

Donostiako Udaleko Gazteen-tzako Informazio Bulegoan gazteek hainbatetan galdetzen duten gaiaren inguruan hitzaldia antolatu da apirilaren 23an, 19:00etan Donostiako Udaleko Udabatz Aretan: *Kooperante joan nahi duzu?* Hitzaldia Gipuzkoako GGKEen Koordinakundeak emango du.

CNT-AITren leku aldaketa

CNT-AITeko egoitza aldatu du. Orain arte Lasarte-Oriako Golf plazako bulegoa utzi eta hemendik aurrera Donostian izango dira, konkretuki Ferreiras plazan (Anoeta futbol zelairen inguruan).

Zentzumen tailerra

Apirilaren 21ean eta 28an, astearte, Manuel Lekuona

kulturetxeko 3. pisuan, liburutegi ondoko gelan Zentzumenak lantzeko tailer bat emango du Idoia Etxegoieneke.

Tailerra arratsaldeko 18:00etan izango da eta doanik da. Etorri nahi duen guztia gonbidatuta dago.

Kartel Lehiaketa

Buruntz-Azpi elkarteak antolatutako VIII. Garagardo Azokalko kartel lehiaketan parte hartzeko azken eguna apirilaren 24a da. Ideiak elkartearen egoitzan aurkeztu behar dira.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behe

Dagokionari



Badirudi Udalak inguru hauek erabat eraldatzeko asmoa duela, baina... ikusi al du inork gure "CIBILES" partikularra martxan?, ur ikuskizun hau ikusi gabe geratu gara lasartear asko. Zenbat diru alferrik botata !!

Iñaki Letamendi



www.izarrabitxitegia.com

IPARJOY[®] A.I.



Geltoki kalea 19, Tel.: 943 371384 • Juan XXIII.a plaza, z/g, Tel.: 943 364945



IZARRA
BITXITEGIA

